



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA ERGOIEN

ZENBAGARREN SAIOA: 8

Data:	Hasiera ordua:	Bukaera ordua:
2018-10-08	19:35	21:20

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Domi Azpiroz, Enekoitz Marcos, Eneritz Arbelaitz		
Herritarrak:	Euskaraz: 6		Elebitan: 0
	Emakumezkoak: 2		Gizonezkoak: 4
	<30 urte: 0	31-50 urte: 2	51-65 urte: 2

AKTA:

Gaia:	Ekarpena eta iruzkinak:
Balorazio orokorra	Zinealdeako eramuaz galdetu da. Enpresa bat dagoeneko bertara doa eta kontsultak ere egiten ari dira. Mugimendua dago.
Aurrekontuak 2019	Ez da galderarik egon.
Auzoa	<p>Matxiyotik bidegorrira doan bidean aipatu da herri bideen inbentarioa gaizki dagoela eta terreno partikularrak daudela. Herri bideen inbentarioa egin zenean eskala txikian pasa zitzaien plano eta ez zen zehazki bidea nondik zegoen ikusten. Hori zuzendu beharra dagoela esan dute bizilagunek. Erantzun da proiektua egiterakoan nagusiekin hitz egingo dela.</p> <p>Aipatu da Matxiyo aurreko Foru Aldundiaren errepide horretan abiadura handian ibiltzen direla ibilgailuak eta herri bidetik irtete zebra bidea beharko litzatekeela. Abiadura murrizteko neurriak hartzea eskatzen da. Foru aldundiaren errepidea da eta beraiei esan beharko da.</p>

Bidegorrian txakurrak solte ibiltzen dira eta terreno pribatuetako terrenoetara sartu eta ardiak izutzen dituzte, kaltea eraginez. Herri bidea berreskuratzean egoera hori areagotu daitekeela aipatzen du bizilagun batek. Txakurrekin orokorrean arazo bat dagoela aipatu da. Pertsoneri ere kozka egiten diote, auzotar batek berari egin ziola aipatu du. Bidegorrian oso gutxi errespetatzen dute lotuta eramatea, nahiz eta seinaleak dauden.

Goizeko seietan korrikalariak ere errepidean ibiltzen dira, eta oso arriskutsua izaten da. Fortalezatik Elizaldera argirik ere ez dago. Bizikletak, oinezkoak... ibiltzen dira eta oso arriskutsua geratzen da.

Goikoetxeok argia eskatzen dute. Lagunzarrenekoek ere maldan argia eskatzen dute. Eskaerak eginak omen dituzte udaletxean. Komentatu da landa eremuan ez dela argiteria jartzen.

Arbelaitz bidean sutea egon zen eta bonberoak galduta ibili ziren. Baserriak eta seinalizatzea eskatzen da.

Bidegorrian leku batzuetan argi asko dago eta besteetan gutxi. Ergoienera asko dagoela aipatzen da.

Espaloiares eskaera aipatu da. Ezin denez egin, gutxienez aldundiko errepidean argiztapena jartzea eskatu da (plaka solarrekin funtzionatzen dutenak edo).

Garraio publikoaren inguruan hitz egin da. Taxibusaren maiztasun gehiago eskatu da. Xorrola ezin baldin bada, behintzat taxibusa indartu. Abuztuan behar da. Zerbitzua indartuta gehiago erabiliko da. Bestalde, zerbitzuaren berri zabaldu egin behar da.

Ergoiengo errekan, Maraiko errekan, amuarrainik ez da ikusten. Pullegiko depositoagatik ote den galdetu da. Udaletxean galdetuko da. Olatxe arte ere ez dago amuarrainik.



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



	<p>Tornola kalean ere abiadura handia dago. Hau ere Foru aldundiaren errepidea da. Arditurri zabaldu zenean hitz egin omen zen kroskak jarriko zirela.</p> <p>Atamitxeko zubiaz galdetu da. Laster obra egingo dela erantzun da.</p> <p>Bidegorrian arditurriko aparkalekuaren aurrekaldean sasia oso handitua omen dago. Berez, landaketa egin ondoren bere gisara hazten uzten da.</p> <p>Orokorrean Oiartzungo beste eremu batzuen inguruan hitz egin da: Karrika, Ugaldetxo... auzoen egoera zein den...</p>
--	--

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,00
bilera ongi gidatu da	8,67
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,67
Auzotar kopurua	3,00
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	6,67
Saioa probetxugarria izan al da?	8,00
Egunaren egokitasuna	7,33
Orduaren egokitasuna	6,67
Lekuaren egokitasuna	8,33
Batezbestekoa	7,37